



BANANA KARMELIZATUKO TXIGORTUA JOGURTAREKIN

OSAGAIAK

(4 pertsonarentzat)
4 xerra txapata ogi
4 banana
1 jogurta, greziar motakoa
20 gr ezti
20 gr gurin
20 gr azukre
1 kopa ron

ELABORAZIOA

Ogia labean erreko dugu.
Jogurta eztiarekin nahastuko dugu.

Zartagin batean jarriko dugu gurina, eta, desegin denean, banana zuritua eta azukrea erantsiko diogu. Rona gehituko diogu eta guztiz lurruntzen utziko dugu.

Jogurta ogi txigortuaren gainean banatuko dugu, eta gainean banana xerratuta jarriko dugu.



PREZIOA
TXIKIA



DENBORA
20'



ZAILTASUNA
4/10



OSASUNGARRIA
7/10